FUNDACIÓN Vital FUNDAZIOA

Zer ikusi, Hura egin

2., 3., eta 4., DBHko, batxilergoko, LHko eta graduetako ikasleentzat.

Informazio gehiago

«Zer ikusi, hura egin» tailerra nerabe eta gazteen erresilientzia eta pentsamendu kritikoa indartzeko diseinatuta dago, informazio fidagarri eta kontrastatuan oinarrituta, euren ongizate errealean lagunduko duten erabakiak hartzen laguntzeko. Helburu nagusia da ikasleei gelditzeko, behatzeko eta euren erabakiak nola hartzen dituzten hausnartzeko espazio bat eskaintzea. Zein baloretatik abiatzen diren eta kontsumitzen dituzten edukiak zein eragin duten euren oreka emozionalean.

Jarduteko modua

Tailerrak bi saio presentzial ditu, non gamifikatutako metodologia bat aplikatzen den, ikaskuntza joko bihurtuz. Eduki bisual, eguneratu eta hurbilen bidez, ikasleen arreta erakartzen da eta hausnarketa sustatzen da. Saioetan zehar, ikasleek ohiko kontsumitzen duten edukiarekin lotutako galderak eta informazioa planteatzen dira, elkarrizketa eta analisi espazioa sortuz. Gainera, saio bakoitza egungo gaietara edo ikastetxearen behar zehatzetara egokitzen da, egokitasuna eta eraginkortasuna bermatzeko. Tailerrak euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke.

Izen-emateak

Arabako lurraldeko ikastetxe guztiek jarduera hau doan eskatu dezakete helbide elektroniko honetara idatziz: actividades@fundacionvital.eus eta informazio gehiago nahi izanez gero, **945 064 367** edo **945 064 355** telefonoetara deitu.

Fundación Vital Fundazioa
Kordoi Etxea, Aiztogile 24, Vitoria-Gasteiz
945 776 858
info@fundacionvital.eus